

Irubide jatetxeari saria, euskara zaintzeagatik

Jakitea ostalari elkarteak Hernaniko

Irubide jatetxeari saria eman zion

otsailean, jatetxean euskara bereziki

zaintzeagatik.

<http://euskara.buruntzaldea.org/euskara/herriak/hermani/albisteak/ez-nuen-pentsatuko-inoiz-euskeragatik-saria-emango-zigutenik>



Baietz gurean! programa

[Buruntzaldeko](#) udalek eskualdeko enpresei hizkuntza kudeaketan laguntzeko daukaten doako programa da Baietz gurean! Gaur egun 8 enpresak dihardute egitasmo honetan. Interesik edukiz gero edo informazio gehiago nahi izanez gero, idatzi email bat helbide honetara: [baietzgurean.kontsultak@gmail.com](mailto:baietzgurean.kontsultak@gmail.com)

## Oronan egindako euskarazko proiektu bat sarituta



Ikasketa amaierako euskarazko lanik onena aukeratzeko lehiaketa [Mondragon Korporazioak](#) eta [Mondragon Unibertsitateak](#) sortu zuten orain dela hiru urte, enpresa askotan dagoen gaztelaniazko inertiarekin apurtu eta euskarak lan alorrean presentzia handiagoa izan dezan. 2013ko proiektu onenak, saritutakoak, [Oronan](#) eta [IK4-Idekon](#) gauzatu dituzte

Hala, lehen saria, 1.500 euro, Ander Malbadik lortu du Hernanin dagoen Orona enpresan gauzatutako lanari esker, "Ilogailuen gida-sistemaren neurgailua". Amaia Buenok bigarren saria lortu du, 500 euro, Ideko enpresan egindako lanagatik, "Proteomika arloan lagin prestaketarako makina-prototipo baten diseinua eta fabrikazioa" izenburua duena.

Aurtengoan, 176 proiektu egin dira guztira euskaraz eta horietatik 32 aurkeztu dira sarira. Mikel Lezamiz, Mondragon Korporazioko euskara arduradunaren hitzetan, sari hauek banatzen jarraituko dute, euskararen normalizazioa egia bihurtu arte. Edizio berria, 2014koa, abian da dagoeneko.

## EKOI 2 proiektua

**Ekonomia berdea eta euskara sustatzeko proiektua**

Buruntzaldeko enpresetan ekonomia berdea bultzatzeko proiektu bat jarri da abian, EKOI2 proiektua. Enpresek proiektu honen bitartez lortuko dute ekonomia berdearen inguruko sentsibilizazio prozesua abian jartzea, sormena bideratzea eta ekintza plan bat eskuartean izatea. Gipuzkoako Foru Aldundiak sustatutako eta diruz lagundutako programa bat da, eta besteak beste euskararen erabilera ere bultzatzen du, baldintzetako bat baita proiektua euskaraz izatea eta proiektuko komunikazioa ere euskaraz izatea.

Proiektu honetan parte hartzen dute [Mondragon Goi Eskola Politeknikoak](#), Gipuzkoako Foru Aldundiak, Andoaingo Udalak eta Buruntzaldeko enpresek.

## Tribuaren berbak

ETB1en asteazkenero euskarari eta hizkuntzei buruzko datu bitxiak eta deigarriak ematen dituen programa da [Tribuaren berbak](#). Formatu dinamiko eta atseginean eta Kike Amonarrizek gidatu eta aurkeztuta, aukera ezinhobea ematen du hizkuntzen eta euskararen mundura gerturatzeko. Astero gai baten ingurukoa izaten da saioa Gogoratu asteazkenetan 22:15en, ETB1en edo EITB

[Nahieran](#)

